

## Oporrak festarik festa



Arg.: Dioni

*Baga-Biga*

KULTURGAIAK

2. ZATOK  
FESTARA!!!

Andra Mari Kalea-37 ORDIZIA Tel/Faxa: 88 12 81







# GOIHERRI, S. L.

## Iturgintza

Urdaneta 24

☎ 88 11 57

ORDIZIA

**Sanitarioen instalazioa**

**Iturriak**

**Bainuko altzariak**

**Berogailu eta Gasa**

*Festa zoriontsuak  
opa dizkizuegu denoi!*



# **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,  
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



**GOIERRITARRA  
HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**  
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1  
(Postetxe gainean)  
124 posta-kutxa  
20240 Ordizia  
Tfnoa: 88 96 12  
Faxa: 88 27 19

**Zuzendaria:**

Loinaz Agirre

**Maketazioa:**

Mikel Albisu

**Publizitatea:**

Josune Agirre  
Argider Mujika

**Erredakzio Batzordea:**

Dionisio Amundarain, Jon Arano,  
Mikel Albisu, Joseba Telleria,  
Ane Martin, Loinaz Agirre eta  
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta  
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,  
Xabier Urteaga, Nagore Goiburu,  
Josune Aldabe, Edurne Albizu,  
Gabino Murua, Aitziber Murua,  
Aitor Arrue, Zorion Insausti eta  
Jasone Osinalde.

**Fotokonposizio eta maketazioa:**  
**GOIERRITARRA.**

**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

**Tirada:** 6.500 ale.

**ISSN:** 1132-0907

**Lege gordailua:** SS-926/89

**Frankeo kontzertatua:** 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere  
gain hartzen derrigorrez, aldiz-  
karian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

**HAMABOSTALDIAN NABARMEN**

**Flaco Jimenez,  
Iparragirre  
anai-arrebak,  
Alaitz eta  
Maider  
Beasainen**

Gaur uztailak 18, triki-  
festa handia izango da  
Beasainen, Antzizar ki-  
roldegian, gaueko  
10.30etan. 'Tex-Mexaren  
Erregea' den Flaco Jime-  
nezek 97ko Bira hasi du  
Estatu espainiarrean, eta  
tarteetan Beasain bisitatuko  
du. Flaco Jimenezekin  
batera, Koldo eta Arantxa  
Iparragirre trikitilari bea-  
saindarrak eta Alaitz eta  
Maider trikitilari oiar-  
tzuararak arituko dira dira.

Serrano Produkzioak  
eta Beasaingo Udalak,  
Kirolaren Udal Erakun-  
deak eta Loinatz 97k an-  
tolatu dute kontzertua.  
Adierazi digutenez, festa  
handia prestatu dute, mu-  
sika alaia eta giro ona na-  
gusi izango dena. "Flaco  
eta akordeoia oso ondo  
lotzen dira, biak bat dira.  
Hori dela eta, festa han-  
dia egitea erabaki ge-  
nuen. Betiko doinuak jo-  
ko ditu Flacok. 'Tex-mex'  
musika egiten du, 'teja-  
no-mexikano' nahaske-



ta", dio Serrano Produ-  
zioko Aitor Narbaizak.

**Beasaindarrak**

Koldo eta Arantxa Iparr-  
agirre anai-arreba herrita-  
rrak triki-festa honetan  
izatea egoki ikusi dute  
antolatzaileek. Lehen dis-  
koa kalean dute beasain-  
darrek, 'Murumendiko  
Mari' eta kontzertu ugari  
ematen ari dira Euskal  
Herri osoan.

Alaitz eta Maider nes-  
ka gazteek, oraintxe kale-  
ratu dute euren lehen dis-  
koa. 'Txanpon baten tru-  
ke' abestiarekin udako  
kanta izateko borrokan  
ari dira.

Gauzak honela, akor-  
deoi eta trikitri doinuak  
atsegin dituenak, Beasai-  
nen du zita. Sarrerak  
1.500 pezetan daude sal-  
gai.

**BOTA BERTSOA**



**Igor Eguren**

**2 gezur 2 bertsoetan**

*Doinua: Mutil koxkor bat  
itsu aurreko*

Uste ez nuen berri handi bat  
heldu zait gaur belarrira,  
Ordiziako Udaletxean  
eman omen dute bira:  
Alkate jauna Madril aldean  
gestionatzen ari da,  
preso guztiak gerturatzea  
norbere bere herrira;  
eta gureak festetarako  
etxean egongo dira.

Jaurlaritzaren Boletinean  
honako hau jartzen zuen:  
Gaztea eta langabetua  
honi begiratu arren!  
Ikusi gure plangintza honek  
zenbat onura dakarren:  
langabezian baldin bazaude  
izena jar(e)zazu hemen  
ta lanpostua izango duzu  
bihar argitu baino lehen.

**Eusko Jauraritz-  
ko Kultura Sailak,  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiak eta**

**GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria**



**GOIERRITARRA doan**

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria .....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



## Sufrimenduak jarraitzen du

Horrenbeste esateko dauka-gunean, zaila da hitz gutxitan gauzak adieraztea: lehendabizi politikariei esango genieke, bereziki euskaldunei, hitzak jadanik soberan daudela eta jar ditzatela praktikan euskal gizartea ixilarazteko botatzen dituzten hitz polit eta potoloak.

Momentu honetan 553 preso politiko daude Estatu Español eta Frantseseko karteletan sakabanaturik; hauetatik 29 preso bakarrik daude Euskal Herrian. 553 presoetatik 10 dira ordiziarrrak, 8 estatu espainiarrean eta 2 estatu frantziarrean daudelarik. Presoez gain, hainbat eta hainbat errefuxiatu dauzkagu, ordiziarrrak tartean, hauek ere egoera kaxkarrean.

Legeak dioenez, presoak bere etxetik gertuen dagoen kartzelan bete behar du zigorra. Honek esan nahi du, Ordiziakoa den presoak Martutenerako espetxean egon beharko lukeela edota esaten dugun bezala Euskal Herriko beste kartzelen batean. Legeak dio baita ere, zigorraren 3/4a beteta dituz-

ten presoak kalean egon beharko luketeela baldintzapeko askatasunean. Gure kasuan 5 preso ordiziarrek kalean egon behar lukete zigorraren 3/4a beteta dutelako. Honen inguruan, Udaletxean mozio bat sartu genuen 3/4a beteta duten 5 preso hauen askatasuna eskatzeko eta onartua izan zen partidu guztien botoarekin PPrena izan ezik. Baina ez da nahikoa baietz esatearekin eta herritarren aurrean ondo geratzearekin, egiazko saiakerak egin behar dira, politikari bezala asko egin dezaketelako.

Euskal presoak, Euskal Herrikoa ez den lege batean oinarriturik epaitu eta zigortu zituzten... baina inoiz ez epaiketa justu bat eginez. Legisladore hauek zigorra jartzerakoan bakarrik oinarritzen dira legean, aldiz presoak zigorraren 3/4a betea duenean ez diote kasurik egiten legegari, nahiago dutelako presoak fisikoki, moralki eta politikoki, suntsitzea.

Hauek dira kalean egon behar luketen 5 preso ordiziarrrak:

● Agustin Kortez: Galizian jaioa eta txikitik Ordi-

ziara etorria. 17 urte daramatza espetxean, 7 espetxe pasa dituelarik.

● Eugenio Irastorza: 17 urte kartzelan eta 8 espetxetatik pasa da.

Bi hauek 1995az geroztik kalean egon behar lukete.

● Antxon Garcia del Molino: 66 urte ditu eta horietatik 16 kartzelan pasa ditu 6 espetxe ezagutuz. Osasun arazoak ditu eta 1996ko hasieraz geroztik kalean egon behar luke.

● Arantxa Karrera: Amezketan jaioa eta atxilotu zutenean Ordizian bizi zena. 15 urte daramatza kartzelan 8 espetxe desberdin pasa dituelarik. 1996ko hasieraz geroztik kalean behar luke.

● Jokin Zubeldia: Abaltzisketan jaioa eta atxilotu zutenean Ordizian bizi zena. Arantxaren senarra da eta honek ere 15 urte daramatza espetxean. 9 espetxe desberdinetatik pasa da eta 1997ko hasieraz geroztik kalean egon behar luke.

Guzti hau jakinik, gizarteak zerbait esan beharko luke, edota bigarren aldiz "epaitu" behar al ditu gizarteak bere ixiltasunarekin?

Badakigu euskal gizartearen zati handi batek badakiela zerbait dispertsioari buruz, baina guk Senideok eta preso bixitatzera joaten diren herritarrek ondotoxo dakigu zer den astero bidaiak egitea, bidai bakoitzean gure bizia arriskuan jarritik eta urtean miloika pezeta gastatuz. Eta hori nahikoa ez balitz, presoek egiten dizkieten joko zikinen eta eguneroko bizitzan jasaten dituzten mehatxu eta eraso bortitzen testigu zuzenak gara. Hau guztia entzun eta ikusi ondoren etxera itzuli behar izaten dugu inpotentzi eta amorru sentimendua gure gorputz guztian dugularik.

Denon artean esan behar diegu ozenki, bai politikari eta bai Estatuko agintari intransigentei, legea betetzea eskatzen dugula. Hau erreallitate bihur dadin bide asko daude eta mugitu egin behar da, ez da nahikoa ados gaudela esatearekin.

Guk etxean nahi ditugu eta ez kartzelan, baina bitartean presoak Euskal Herrira eta 3/4a beteta dutenak eta gaixo daudenak aske orain!!

*Ordiziako Senideak*

## LOINATZ

Taberna  
Jatetxea

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



## TOKI-ALAI JATETXEA


**Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...**

**Tfnoa.: 88 89 53**

**ARAMA**

Argitarapen honen edizioa argitaratzen

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*



## TXANDAKA

### Bordari berriak Ataunen

"97ko uztailak 18" dio "Goierritarra"ren ale honek bere azalean. Baliteke 1597koa, 1697koa izatea... ez, 1997koa bide da. Eta 1997 honetan irakurri dugu berria: "Lareo eta Maomendi bitartean 40 borda-etxe eraikitze-ko proposamena".

Lehenagokoetakoa izan balitz, dokumentu zaharretan aipatzen diren "borda o casilla de ganado" haiek egitea, ezinbeste larri bati lotua letorke: etxean denak ezin kabitut, denentzako janik ez eta egin egin behar txabola bat mendi aldean, abereentzat eta guretzat, landu egin behar bazter pobreago haiek.

1997ko honetako bordarigaiek, ordea, ez dute orduko premiarik; orain, dio albisteak, "lau borda mota jasotzen ditu proiektuak, txikiagoak batzuk, haundixeagoak besteak, taberna-jatetxea, bi pilotaleku eta igerilekua".

Oraingo bordariak ez dut uste abererik izango dutenik, baina, ordukoak baino aberatsagoak izango dira, seguru. "Borda-etxeak" egiten badira, Atauna ere (edo auskalo nora) iritsiko dira soson batzuk; eta bordari berriak majo ibili ahal izango dira Aralarko parke naturalean.

Uste dut, bordarien garaian, lege bat bera ere ez zela egongo ingurugiro kontuez; gaur, esaten dute, badela bat Aralar babesteko. Balio ote du diruaren aurrean?

Antonio Berasategi



## Ezkontzetan gehiegikeriak egiten al dira?



**Karlos Lerma**

39 urte, Udaletxeko langilea  
ormaiztegiarra

Montaje handia izaten da ezkontza, baina nik oso ondo pasatzen dut. Gaur egun jende asko ezkontzen da.

**Kepa Zubiarrain**  
28 urte, ekonomilaria  
lazkaotarra

Montaje handia da, baina ba-koitzari tokatzen zaionean, norberarentzat egun handia izatea nahi denez, ahal den handiena egiten da.



**Joxe Manuel Garmendia**  
29 urte, mekanikoa  
lazkaotarra

Prestatzeak lana ematen du behintzat. Irailean ezkonduko naiz. Bizitza onari agur esan eta geratzen zaidan gutxia aprobetxatu behar. Lehengo berriketak ez dago orain eta hemendik aurrera izango dut zereginik, etxeko lanak egin, umeak hazi...



**TOYOTA**  
**GOIERRI AUTOAK**



**TOYOTA CARINA E**  
**2.150.000 pezetatik**

**3** URTE  
GARANTIA

**24** ORDU  
ASISTENTZIA

**ORDIZIA**

☎ 88 20 05 - 88 10 73

**ORDIZIAKO**

**Suquia**

Kale Nagusia, 10

**SUKALDEKO ALTZARIAK**

*Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz  
eta ikus ezazu gure erakusketa*

**Vegasa**

**Xkey**  
Taldekoa

☎ 88 23 00

**ORDIZIA**



**GOITGI**  
**OKINDEGIA**

*Ogigintzan onenak!*

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

**Etxezarreta z/g**

**ORDIZIA ☎ 160501**

**Barandiaran Taldea,2**

**ZALDIBIA ☎ 880737**



## ZINEA

### BEASAIN:

'Como triunfar en Wall Street'. Ostirala 18: 22:15; larunbata 19: 19:30 - 22:15.

'Secretos de corazon'. Igandea 20: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 21: 19:30.

### ORDIZIA:

'Airbag'. Larunbata 19: 19:30 - 22:15; igandea 20: 19:30 - 22:15; astelehena 21: 19:30.

'Rainbow' (Euskaraz) Igandea 20: 16:45.

## ANTZERKIA



### ORDIZIA:

Uztailak 18, Ordiziako antzerki taldeak W. Shakespearearen 'Errege gaua' lana taularatuko du, Herri Antzokian, 22:00etan.

## BESTELAKOAK

### LAZKAO:

Abuztuak 19, Koldo Ameztay ipuin-kontalaria, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

## MUSIKA

### BEASAIN:

Uztailak 18, Triki festa: Koldo eta Arantxa Iparagirre, Alaitz eta Maider, eta Flaco Jimenez, Antzizar kiroldegian, 22:30etan. 1.500 pezeta.

### LAZKAO:

Abuztuak 27, Jehremias Johnsonen kantaldia, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

### ORDIZIA:

Uztailak 25, Kubako Megason musika taldea, Domingo Unanue plazan, 22:30etan.

Uztailak 26, Irungo Udal Musika banda, Plaza Nagusian, 13:00etan.

## BERTSOLARIAK

### LAZKAO:

Abuztuak 7, bertso-afaria Maizpideko zinema-aretoan, 20:00etan: Aitor Sarriegi, Alaitz Sarasola eta Haritz Zeberio.

## ERAKUSKETAK


### BEASAIN:

Uztailaren 19tik hasita, Patxi Lopezen erakusketak, Aterpe tabernan.

### ORDIZIA:

Uztailaren 18tik 27ra, XIII. Ortzadar Sariko lehiaketan aukeratutako lanak, Barrenan, 18:00etatik 20:00etara.

## IBAI-ONDO



**ZURGINTZA  
ALTZARIAK  
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g  
☎ 880543 BEASAIN

## ARRIETA

JATE TXEA

☎ 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,  
jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

## VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

## ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a  
☎ 88 17 00 - 88 17 04  
BEASAIN



GENERALI  
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20  
☎ 88 87 02  
BEASAIN



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea      Esteban Lasa, 7  
☎ 88 40 57      ☎ 88 80 29  
ZALDIBIA      BEASAIN



## Etxebizitzak:

Beasaingo erdigunean pisua salgai. Berriztatua. 3 logela, egongela, mobeztatuturik dagoen sukaldea eta bainugela ditu. Prezio interesgarria. 16 19 16.

Iruñean (Barañainen) pisua osatzeko bi ikasle behar dira. 17.500 pezeta. Ane. 806410.

Neska bat behar da Iruñean pisua osatzeko, Nafarroako Unibertsitatetik gertu. Izaskun. 80 16 89.

Hurrengo kurtsoan Leioan pisua osatzeko 3 ikasle behar dira. 806176. Andoni.

Leioan pisua osatzeko 3 ikasle behar dira. 88 34 70. Ainara.

Hurrengo kurtsoan Leioan pisua osatzeko 3 ikasle behar dira. 80 01 80. Leire.

2 lagun behar dira Bilbon (Arangoitin) pisua osatzeko. Deitu 88 29 38 telefonora. Egoitz.

Bilbon San Inazio auzoko pisu baterako jendea behar da. 11.000 pezeta. Eider. 161660.

Arrasaten pisu bat osatzeko 2-3 lagun behar dira. Oihana. 88 52 71.

## DEBALDEKO IRAGARKIAK

### Salerosketak:

2 mendiko bizikleta salgai, Orbea markakoak. 885547.

Cocker txakurkume ederak salgai. Gorriak eta beltzak, arrak eta emeak. Aukerak. Arrazakoak eta txertoa jarrita dute. 88 80 68.

AX autoaren parrila salgai. Estreinatua gabea. Deitu 12:00etatik 14:00etara. 806552.

'Can-can'-a salgai. Behin erabilia. Oso egoera onean. Prezio onean. Deitu 12:00etatik 14:00etara. 806552.

Solariuma salgai, Ergoline markakoa. Berria da. 885513. Eguerdietan edo gauean deitu.

Tresillo berri-berria salgai. 88 96 87. Deitu iluntzeko 8.00etatik 10.00etara.

Taberna bat traspasatzen da Lodosan. Lurdes. 948 - 69 36 75.

### Lana:

2 neska euskaldunok (erdaraz ere badakigu) udan haurrak zaindiko genituzke. 88 60 83.

Karta astralak egiten dira, baita tarota irakurri ere. Mila Aierbe. 16 13 78.

Zurgindegi mekanikoa

**JOSE M. YARZABAL**

**AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE**

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxa: 88 90 17

**ATEAK  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
OBRAK  
ERREFORMAK**

**GESTORIA BIOK**

**ASEGUROAK**

- \* Aholkularitza laborala eta fiskala
- \* Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA



**ORDIZIAKO GARAGARZA  
PLAZA ETA GOEN  
KALEAREN ARTEAN:**

- ✓ Berehala eraikuntza berria: apartamentu, eta neurri ezberdinetako etxebizitzekin
- ✓ Lokal komertzialak

**KALITATE GORENEKO ERAIKUNTZA**

**PROMOTOREA:**

**GOI-ETXE S.A.**

Filipinas, 13 - behea

☎ 88 49 50

ORDIZIA

**IKASTEK AKADEMIA**

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

**97KO UDA**

✓ **OHO, DBH, IEE, BBB, UBI, LH**

- ☐ Kurtsoan utzitako gaien errekerperaketa
- ☐ Arlo eta gai guztiak
- ☐ Banakako atentzioa

✓ **UNIBERTSITATE MAILA**

- ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
- ☐ Estatistika
- ☐ Matematika

**HASERA: UZTAILAK 1**


☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



## ERREZETA



*Eli Garcia*  
*Txindoki jatetxea*  
*Ordizia*

### LEGATZ PASTELA

**Osagaiak:** 500 gr. legatz, 150 gr. ganba, 2 tipula, tomate frijitua, esnegainak, arrautzak eta gatza.

Tipula gorritu, eta tomate frijitua gaineratu. Irakiten hastean legatza eta ganbak bota. Gatza ere bota eta utzi egiten.

Beste ontzi batean arrautzak eta esnegaina nahastu. Kontutan izan behar dugu tomate frijituaren kantitate bera izan behar dela nahasketa hau. Nahasketa honi legatza gaineratu eta irabiagailuan edo batidoran pasatu, arin xamar gelditu arte. Gatza probatu.

Guztia molde batean jarri eta labeen (175 gradutan) sartu maria-bainuan. Ordubete inguru eduki.

## AHOLKUA



**Zorion Insausti**

### Nafarroako Unibertsitatean Dietetikan diplomatua

Uda etortzearekin batera, badatoz kezka berriak ere. Horietako bat, argaldu nahi izatea da. Baina hori pixkanaka behar du izan, astean kilo bat jaitsiz hain zuzen. Alde batetik, bitaminak eta mineralak ez galtzeko, eta bestetik, jateko ohitura aldaketak oso handiak ez izateko (hau da ohitura aldaketak pixkanaka izan behar dira, bestela berehala itzuliko gara lehengo jateko eratarara).

Idea hauek garbi edukita, denetarik janez ez dago arazorik. Noski, dieta bat behar den bezala egi-

## Argaltzea

teko, unibertsitatean diplomatutako dietista baten laguntza behar da edo mediku endokrino eta elikaduran espezializatu batena. Hau azpimarratzea nahi dut, zeren eta behar den bezala prestaturik ez dagoen pertsona batek dieta egiten badu, akatsak nabarmenak izaten dira.

Azkenik aipatu nahi dut, gizona egotearen arazoa gehienbat estetika arazoa dela. Hala ere, badaude makina bat gaixotasun gizona egotearekin erlazionaturik daudenak. Nik esango nuke faktore bat gehiago dela eta ez kausa bat, kutsadura, erretzea, edatea, eta abar bezala.




- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11  
ORDIZIA



Kale Nagusia, 11  
☎ 88 93 17 ORDIZIA



# TXINDOKI TABERNA



- ✗ Pintxo bereziak
- ✗ Ogitartekoak
- ✗ Plater konbinatuak



- ✗ Eguneroko menua
- ✗ Karta
- ✗ Ospakizunetarako menu bereziak



☎ 88 40 49

Etxezarreta, 3

ORDIZIA



## Oporrak

Udako oporrak hartuko ditugu GOIERRITARRA aldikaria egiten dugunok. Abuztuaren 25ean itzuliko gara lanera, eta irailiko lehenengo alea irailaren 5ean kaleratuko dugu.

## Mikel Otegi

Mikel Otegi aurkitu eta atxilotzeko agindua eman du EAEko Auzitegi Nagusiak, uztailaren 7an itsasondorraz ez baitzen agertu bere askatasunaz ebatzi behar zuen bistara. 1995eko abenduaren 10ean bi ertzain hil zituen Otegi. Bere aurkako epaiketa egin eta aske gelditu zen. Akusazio partikularrak errekurtsioa aurkeztu eta epaiketa berriro egitea erabaki zuen Auzitegi Nagusiak. Aldi berean, Otegi-ren defentsak errekurtsioa aurkeztu du Espainiako Auzitegi Gorenean, zinpekoen epaia baliogabetuz Auzitegi Nagusiak emaniko epaia dela eta.

## Itsasondoko alkatea atxiloturik

Joxe Mari Otegi Itsasondoko alkatea (HB) atxilotu zuen Ertzaintzak uztailaren 2an, "herritarren gehiengoaren eskaerari kasu eginez", Itsasondoko Udalak Espainiako ejerzitoarekin ez kolaboratzeko erabakia hartu zuela eta. HBk adierazi zuenez, "gure salaketarik tinkoena adierazi nahi dugu intsumisioa delitutzat jotzen



## ETArri 'Aski da!' esan diote milaka goierritarrek

ETAk lehenengo bahitu eta ondoren hil zuen Miguel Angel Blanco Garrido Ermuako PPko zinegotziaren askatasuna eskatzeko eta hilketa gaitzesteko konzentrazio ugari egin ziren uztailaren 11tik 14ra bitartean Goierrin. Uztailaren 11n, udaletxe aurreetan bost minutuko konzentrazioak egin ziren, HBk ez beste alderdi politiko guztiek deituta. Astelehenan, berriz, ez-ohizko udalbatzak egin ziren. Eguerdiko 12.00etan Ajuria Eneako Itunak deituriko ordubeteko geldialdiari erantzun zabala eman zioten goierritarrek, bai komertzio, lantegi, nahiz udaletxeetan. CAFen adibidez, LAB sindikatuko hainbat kidek hilketa gaitzetsi, presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatu eta geldialdia egin zuen, beste sindikatuekin batera.

Arratsaldeko 8.00etan izan zen mobilizaziorik handiena. Ordizia, Lazkao eta Beasaindik manifestazio jendetsuak abiatu eta Malkaskon elkartu ziren guztiak, Udalen deialdiari erantzunez. Ia etengabeko txalo zaparradek hautsi zuten ixiltasuna. Beasaingo zinegotzien arabera, 20.000 bat mila lagunek hartu zuten ETaren aurkako ekimen honetan. Malkaskon 5 minutuko ixilunea egin eta berriro ere manifestazioak hasierako lekura itzuli ziren.

Manifestazioen hasieretan, 'Euskal Herria Askatu' eta 'Presoak Euskal Herrira' konzentrazioak egin zituzten ezker abertzalekoek.

*du ten lege espainiarren aurrean, PNVk bere polizia politikoa den Ertzaintzaren bidez, intsumisioaren alde-*

*ko jarrera konprometituen izan dutenak zigortzeko hartu duen jarreraren aurrean".*

## Abialdian

Uztailaren 15ean iritsi zen Beasaina, Askatasunaren Ibilaldia (Abialdian). Euskaldunok geure geroa erabakitzeko eskubidea badugula aldarrikatu nahi du ekimen honek. Duela 20 urte egin zen Askatasunaren Ibilaldi haren jarraipena izan nahi du Abialdianek, "garai hartako helburuak oraindik lortzeko baitaude". Beasainen ongi-etorria egin ziztzaion 7.00ak inguruan, eta ondoren plaza azpian afaria egin zen.

## CAF

Beasaingo CAFek ez ditu Mexiko hiriburuko metroko 252 bagoi egingo, lehiaketa Frantziako Bombardier Concaril enpresak irabazi baitu. Mexikotik jakitera eman dutenez, eskaintzarako oinarriari dagozkien baldintza tekniko guztiak ez ditu bete CAFek.

## Pirinioetako zeharkaldia


Joxe Ramon Agirre 'Marron' gidari dela, uztailaren 26tik abuztuaren 29ra, Pirinioak zeharkatzeko aukera dago. Astebeteko etapatan banatuko da: uztailaren 26tik abuztuaren 1era: Girona; 2tik 9ra: Girona-Andorra; 10etik 16ra: Andorra-Lleida; 17tik 22ra: Lleida-Huesca-Nafarroa; eta 23tik 29ra: Nafarroa-Gipuzkoa. Informazioa: 18 02 53 - (94) 454 16 95 telefonotara deitu.



LADA  
Ssang Yong  
N-1, z/g  
☎ 88 09 47

**ARANDIA**  
Garajea

AUTOEN KONPONKETA  
Iurre Auzoa  
OLABERRIA



☎ 88 96 67 ZALDIBIA

**OPS Ingenieros S.L.**

✱ Topografiako Lanak: lur neurketak, balorazioak.

✱ Nekazal proiektuak: bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

☎ 18 00 84 - 18 00 33



JASONE OSINALDE, GUATEMALA, SAHARA ETA SARAJEVON IZAN DA

## "Gure laguntza pertsonalak herri haven sufrimendua arintzen lagun dezake"

**A**zareak munduko hiru kontinente ezberdinetara eramanez: Amerikan Guatemalara, Europan Bosniara eta Afrikan Argelien Saharauek dituzten errefuxiatu kanpamenduetara. Hiru herrialde hauetan espazioa, kultura, erlijioa, arraza, identitate guztiak ezberdinak izanik, egoera berdina bizi dutela esatera ausartuko nintzateke: gerra ondorena.

### Guatemala

1985. urtean Guatemalako ejerzitoak bertako talde indigenen aurka eraso egin zuen. Altiplamoko nekazari indigenen herrixkak erre, bertan topatzen zituzten pertsonak hil eta azkenik lurren jabe egin ziren.

Ihes egitea lortu zutenetarik gehienak Mexikon errefuxiatu ziren. Hauetariko talde txiki bat (700 bat pertsona) Guatemalako hiriburura itzuli eta mobilizazioetan hasi ziren, 1991n lurralde batzuk lortu zituztelarik. Gobernuak, Guatemalako hiriburutik 225 kilometroko Ozeano Barearen ertzean Champerico eta Retalhen herrien artean dauden lurraldeak saldu zizkieten. Orain badute lurra, ez oso emanorra eta 20 urtez beraien



*Man taldekoen mobilizazioak Guatemalako ejerzitoari aurre egiten.*

xoxak nora bideratua. Gobernuari ordaintzeko gogorlan egin behar dute. Hilean 5.000 pejeta inguru irabazten dute, erdia gobernuari ordaintzeko da.

Lurralde berri hauek 5 kanpamenduz osatuta daude. Hauetariko bat Santa Ines da, Man talde etnikoko 21 familiaz osatua dago. Familiako bakoitzak 3,5 hektarea ditu. Artoa eta sesamoa edo ajonjolía landatzen dituzte. Erregadio sistemarako teknologia modernorik ez dutenez ontzi eta baldeen bidez egiten dute.

Familiako etxebizitza bat dute, hau oso umila. Zoruan lokatza, horma eta teilatuak hosto eta adarrez estalita, suge eta intsektuei sarrera guztiz zabalik gelditzen zaiztelarik. Barruan, berriz, txotxa txikiez egindako sualurrean, zurezko mahai bat bi aulkirekin eta adar indartsuenetatik 4 edo 5 sokazko hamaka beraien moskiterekin.

Argi elektrikorik ez, ura berriz kanpamenduan dauden bi putzuetatik atera eta ekarri behar dute. Kanpa-

mendu erdian ONG batek adreiluzko bi eraikuntza eraiki dizkie, eguzki energiarekin argi elektrikoa dutelarik. Hau eskola, junta-etxe eta beharrezko funtzio ezberdinetarako erabiltzen dute.

Mediku zerbitzurik ez dute. Beraiek egindako botikak eta EEBBetatik datozen kadukatutako bitaminak hartzen dituzte soilik.

Helduak analfabetoak dira (8 pertsonak dakite irakurtzen), haurrak, berriz, pixkanaka irakurketa-idazketa ikasketetara bideratzen doaz. Eskola maiz hutsik gelditzen da. Ez dago inolaz ere ekipatuta, materiala eta pertsonala falta zaio. Gurasoek semeen ikasketak aurrera eramatea ezinezkoa dela ikusirik lanean erakusten diete.

Komunitate hau berriena eta txikiena izanik ekipamenduz ere txikiena da. Hain txikia eta urruti egonik bere antolamendu egokiaren isla bezala, hemen 1992ko uztailaren 16an 'el rescate de la cultura maya por la tierra es la lucha por

la vida y la paz' lemapean Conic (Coordinadora nacional indigena campesina) jaio zen. Gaur egun 130 komunitate indigenek osatzen dute. Beraz, barneko indar-batasuna lortu dute. Orain, atzerriko laguntzen bila dabilta beren mixeritik irtetzeren.

### Sarajevo

Balkanetako konfliktoko galtzaileak bosnioak izan direla esaten denean, ez da gezurra. Split eta Sarajevo lotzen dituen bide ertzean, bat-batean etxe eta herriak guztiz txikituta ikusten direnean, hor hasten da Kroazia eta Bosniaren arteko muga. Oso zaila da adreilu bat beste baten gainean ikustea. Imagin hauek telebistan maiz ikusiak nituen baina han 'in situ' ikusteak odol zirkulazioa moztu zidan.

Sarajevo 600.000 biztanleekin hiri txiki zoragarri bat zela somatzen da. Eliza katoliko, ortodoxo eta mezkitak hiri guztian zabalduta. Eraikuntzak estilo arkitektoniko ezberdinen nahasketak dira, ekialdeko otomanoen dominazioagatik eta mende-



*Sarajevoko etxe bat bonba batek txikituta.*



baldekoa Austro-Hungaroen. Eraikuntza zoragarriak, baina bonba, mortero eta metrailen hatzamarkek ondo inprimatuta dituzte.

Hiria jardin eta parkez beteta dago, gaur egun hilerri bihurtu direlarik. Garraio publikoak pixkanaka mar txan jarri dira, zenbait lekutan argi elektrikoa, gasa eta ura ere bai. Ospitale, eskola, jatetxe, taberna eta denda batzuk ateak zabaltzen hasi dira. Beraz, gainbegirada baten ondoren badirudi normaltasuna iritsi dela.

Baina, biztanlegoaren % 80a oraindik kanpoko laguntzari esker bizi da (% 70 atzerrian dauden famili eta lagungatik % 10a ONGetatik). Daytongo akordioaren ondoren inposatutako pakeak laguntzak asko murriztu dizkie. Bertakoentzako ez dago lanik eta herrietatik jendea esku hutsik, lan eta etxe bila hiriburura dator. Lana duen jendeak 12.000 pezeta irabazten ditu, arrautza dozena batek 700 pezeta balio dituenean.

Etxebizitzari dagokionez, populazioaren % 50ak bere etxea okupatuta edo txikituta dauka, beraz maiz 2 edo 3 familia etxe berean bizi dira. Etxeak kristalik gabe, zuloak eta leihoak plastikoz estalita. Neguan, eguraldia oso hotza da. Ni egon nintzenen 20º zeropetik markatzen zuten termometroek.

Hiriburuko mina gehienak kendu dituzte, baina inguruan 3.000.000 bat mina

nork lehertu edo desaktibatuko zain daude. Egoera honen aurrean, bosniarrak ere herria altxatzeko laguntza zain daude.

### S.E.A.D - Sahara

Marokok Mendebaldeko Sahara inbaditu zuela badira 22 urte. Inbasio honen ondoren milaka pertsona atxilotu, torturatu eta hil zituzten. Milaka pertsonak ere beren lurraldea utzi eta atzerrira jo zuten. Gaur egun 160.000 saharaui Argeliako gobernuak utzi dizkien lurraldeetan bizi dira. Azken 5 urteetan gerra honetan su-eten bat egon da. ONU bitartekari izanik erreferendum baten zain da Sahara herria. Baina, funtsean gerrak jarraitzen du.

Gizonezkoak gerran dauden bitartean emakumeen esku gelditzen dira kanpamenduak. Emakumeen ardua eta antolamendu egokia ezinbestekoa izan da eguneroko bizitzari aurre egiteko.

Tinduf ondoan kokaturiko lurralde hau basamortua da, guztiz himospitoa, imajina ezina. Harea, harriak... badirudi ez dela inoiz bukatzen. Izugarritzko beroa egiten du, eguzkiak dena erretzen du eta urak urrea dirudi.

Ahuntz eta kamelu gutxi, baratza txiki batzuk eta atzeritik iristen zaizkien laguntzekin bizi dira. Honela bizi irauten dute baina populazioaren % 90ak anemia kronikoak dituzte.

Eraikuntza finko baka-



Saharauen kanpamenduak emakumeen antolamendu egokiari esker egiten dute aurrera.

rrak ospitaleak, eskolak eta koartelak dira. Saharauiek haimetan bizi dira, haimak kanpin-denda modukoak dira. Haimetan beraien gauzak maletetan gordetzen dituzte, badirudi beraien lurraldera itzultzeko ekipaia prest dutela.

Harrigarria, populazioaren % 100 eskolarizatua dago eta ikasketa maila oso altua dute (diplomatuak, lizentzuak ugari...). Herri xehea oso kultoa eta kritikoa

da bere egoerarekin eta oso garbi dute helburua: Mendebaldeko Saharara itzultzea, hau beraien nazio indipendientea izanik.

Herria altxatzeko ezin dute lanik egin, ez daude etxean. Pasaporterik ez dute eta ezin dira nahi dutenean irten. Beraien itzultze ametsa betetzen ez den bitartean, gogoratuak, ez ahaztuak izatearekin kontsolatzen dira.

Jasone Osinalde

### Hainbat galdera

Hiru lurralde hauek ezagutu ondoren buruan milaka galdera dabilzkit. Suposatzen dut gehienok ditugunon modukoak direla:

- Gizakia razionala ala basatia da? - Zer interes dira mugimendu hauen sortzaileak? - Irabazlerik ba al dago? Norzuk? - Gure agintariak inplikatzan al dira genozidio hauen aurrean? Gu geu?

Irtenbide politikoak gure eskutik urrun egon daitezke baina gure laguntza pertsonalak herri hauen sufrimendua arintzen lagun dezake. Bidai hauei buruz idaztearen helburua ez da izan tragedietan errekreazioa, baizik eta elkartasun eta tolerantziaren inguruan erreflexio bat sortzea. Ez dezagun ahaztu, berdintasun kulturalak sufrimendua eta pobrezia sortzen duela eta tolerantziak berriz aberastasuna.

*Lirain*

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

**ARRIZAR BODEGOIA**

Eguneroko menua 850 pezeta  
astelehenetik ostiralera,  
12:30 etatik 15:00 etara

**Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN**

**ORDIZIA**  
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76





Pintxoak  
Ogitartekoak  
Bazkariak  
Afariak

88 00 35 ORDIZIA

# Kiská

PUB

Santa Maria ORDIZIA



ORDIZIA

LEIZEA



TABERNA

# ALAIA

Taberna  
Kafetegia

*Festa zoriontsuak opa  
dizkizuegu denoi*

Urdaneta, 2  
ORDIZIA



Jatetxea

- Eguneroko menua
- Asteburuetan afariak kartan

88 39 60  
Gudarien Etorbidea  
ORDIZIA



'Hemen dago  
Johny'

Zaldizurreta Kalea  
BERSAIN

Etxezarreta kalea  
ORDIZIA



# ITOITZ

ogitartekoak  
kafetegia

16 18 08  
Goierri Kalea ORDIZIA

garagardo  
bereziak

# sugar

PUB

"Pintxo eta bokatak"

*Festa onak pasat*

## BOKATERIA

Elkano, 11 ORDIZIA

# ARANTXA

## taberna

PINTXO ETA  
OGITARTEKO  
BEREZIAK

88 72 46  
Ordizia Kalea, z/g  
ORDIZIA



# ORLEGI

TABERNA  
ORDIZIA

# SARRI

## Tabernak

*festa zoriontsuak opa dizkizue*



Etxezarreta K. ORDIZIA



## 'Errege gaua' taularatuko du Ordizia Antzerki taldeak

**S**hakespearen 'Errege gaua' lana itzuli, moldatu eta taularatuko du Ordiziako Antzerki taldeak, gaur, uztailak 18, gaueko 10.00etan, Herri Antzokian.

Rosa Rojoren zuzendaritzapean, urtean zehar egindako lana aurkezteko garaia heldu zaie aktore ordiziarrei. Mikel Leundak itzuli du Shakespearen antzezlanak. Aktore lanetan, berriz, honako hauek arituko dira: Susana Azkunaga, Maria izango da; Iñigo Balardi, Malvolio; Larraitz Bueno, Fabiana; M. Sol Cervero, Olivia; Jone Etxeberria, Valentina/Antonio; Pello Etxeberria, Sebastian; Garikoitz Lariz, kapitaina, apaiza eta zaindaria; Arrate Leunda, Viola; Goyo Miragoya, bufoia eta zaindaria; Estephan Olea, dukea; Beatriz Ruano, Lady Tomasa; eta Xabier Urkia, Sir Andres.

Nahaste, engainu eta itxurazko komedia da 'Errege gaua'. Errealitatea



ez da dirudien bezalakoa. Viola eta Sebastian anai-arreba bikiak urperatu egiten dira. Biak Iliriako hondartzetara iritsiko dira, baina ez aldi berean. Bestea hil egin denaren ustea izango dute biek.

Violak Orsino Dukearen zerbitzura joatea erabakiko du (Cesario) mutila bailitzan. Dukearen Oliviarekin maitasunean bitartekari gisa ihardutea izango da Violaren eginkizuna, Dukearen zerbitzura dagoen bitartean. Zeregin honetan Olivia Cesariorekin (Viola) maiteminduko da eta Viola

Dukearekin.

Sebastianek Oliviarekin topo egin eta honi (Cesario) dela iruditutakoan lehertuko da dena, Malvolio, Olivieren morroia, irakurtzen ari den gutuna Oliviarena dela pentsatu eta Sir Andresek berarekin dueluan borrokatu beharra daukan zalduna zaldun kementsua eta beldurgarria dela uste duenean.

Jantziak eta dekoratua, talde lanean egindakoa da. Ilea apaintzea Estibaliz R. Matxaini dagokio; eta argia eta soinuaren ardura, Vicente Urangak izango du.

### Herriko rock taldeen kontzertua

Erga Omnes eta Anomia taldeak izango dira Gargartza plazako kontzertuan. Beste talde sorpresa bat ere izango da. Hau guztia, uztailaren 24an, gaueko 12.00etan.

### Kubako Megason taldea

Musika eta dantza eskainiko du Kubako Megason taldeak, Santiago egunez, Plaza Nagusian, gaueko 10.30etatik aurrera. Guztira 3 bat orduko ikuskizuna izango da. Eta Kubako edariak ere salgai izango dira bertan.

### Usokume tiraketa

Uztailaren 31n, goizeko 10.00etan hasita, Lazkao-mendiko Pipas taberna inguruan, usokume tiraketa izango da, colonbaire era, Azari ehiza eta arrantza elkarteak antolatutik.

### CUESTA oihaldenda

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak  
Oihalak  
*Jai zoriontsuak denoi!*  
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

### MUNDUATE ERLOJUTEGIA orain zure BITXIDENDA BERRIA

- ★ Diseinu Italianoak
- ★ Japoniar perla kultibatuak
- ★ Urre eta altzairuzko azken nobedadeak

**OSO PREZIO INTERESGARRIAK ETA POLTSIKO GUZTIENTZAT**

**Kale Nagusia, 1-2**

**88 12 72**

**ORDIZIA**

*Munduata erlojutegia, 1888az geroztik*



### JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA

*Jai zoriontsuak denoi!*

- ✳ Tratamendu bereziak: liftinga, mikropigmentazioa, behin-betiko depilazioa eta makilaje bereziak.
- ✳ Opariak: perfumeak, kosmetika eta osagarriak

**J. M. Barandiaran pl., 3 88 28 88 ORDIZIA**

### EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta  
Tarimak  
Armairu enpotratuak



**16 07 50 Domingo Unanue, 2**  
**Faxa: 88 09 13 ORDIZIA**



### Uztailak 18, ostirala:

**22:00etan:** Ordizia antzerki taldea, Herri Antzokian.

**23:00etan:** Danborradako kantineren aurkezpena eta dantzaldia Erreka taldearekin, Beti Alai pilotalekuan.

### Uztailak 19, larunbata:

**12:00etan:** Haurren egun: Aginpidea emango zaie haurren Alkate jaun-andreei. Plaza Nagusian Txikien koadrila biltzea.

**Ondoren:** Buruhandi eta Erraldioen alardea.

**16:00etan:** Txirrindulari lasterketa, 2.urteko kadeteen mailan. Amaiera Gudarien etorbidean, 17:30etan.

**16:15etan:** Koadrila txikien arteko herri kirolak, Joxe Miel Barandiaran plazan.

**18:00etan:** Buruhandi eta Erraldoiak, txistulariekin batera. Udaletxetik Txikien koadrilak irtengo dira Kalejira txarangarekin.

**18:00etan:** Aerobic monografikoa, kiroldegian.

**19:00etan:** Haur animazioa Plaza Nagusian.

**20:00etan:** Beti Argi bandarekin Txikien koadrilen kalejira.

**22:30etan:** Suzko-zezena Arboledan, Beti Argi bandak

alaitua.

**23:00etan:** Haurren mozerro dantzaldia, Beti Argi bandarekin, Beti Alai pilotalekuan.

### Uztailak 20, igandea:

**9:00etan:** Goizeresia herriko txistulariekin.

**10:45etan:** Haurren alkate jaun-andreei harre-ra Udaletxean.

**11:00etan:** Meza. Ondoren Danborrero eta Upeltxo taldeak, Beti Argi bandaren laguntzaz.

**12:00etan:** Haurren ohiko aurrekua, Plaza Nagusian.

**12:30etan:** XIII. Ortzadar Argazki lehiaketaren sari-banaketa.

**16:30etan:** 'Rodamientos Iru' torneoaren pilota finalak, Beti Alai pilotalekuan.

**16:45etan:** Haurrentzat zinea, Herri Antzokian.

**20:00etan:** Haurren danborrada.

### Uztailak 24, asteazkena:

**12:00etan:** Txupinazoa.

**12:15etan:** Buruhandi eta Erraldioen alardea.

**16:30etatik 19:30etara:** Koadrilen arteko futbolin



erraldioen txapelketa, Joxe Miel Barandiaran plazan.

**16:30etan:** Koadrilen arteko herri-kirolak, Joxe Miel Barandiaran plazan.

**18:00etan:** Buruhandi eta Erraldoiak, txistulariekin.

**21:30etan:** Danborrada. Ondoren Koxkola txaranga.

**23:30etan:** Boxeo jaialdi handia, pilotalekuan.

**24:00etan:** Herriko rock-pop taldeen kontzertua, Garagartza plazan.

### Uztailak 25, ostirala:

**7:30etan:** Laguntasuna Rondailaren goizeresia.

**9:00etan:** LXXIV. Villafranca Txirrindulari proba. 13:30etan bukatuko da.

**12:00etan:** I. Nazioarteko Gazte Jaialdi Folklorikoa, Alde zaharrean zehar.

**18:30etan:** Pala partiduak, Beti Alai pilotalekuan.

**19:00etan:** Alde zaharrean eta Urdaneta kalean I. Nazioarteko Gazte Jaialdi Folklorikoa.

**19:00etatn hasita:** Koxkola txaranga.

**21:00etan:** Beti Argi bandarekin kalejira.

**22:30etan:** Kubako Megason musika taldea, Domingo Unanue plazan.

**23:00etatik goizalderarte:** Olimpia orkestra eta Koxkola txarangaren eskutik dantzaldia, Plaza Nagusian.

**24:00etatik 5:00ak arte:** Mozerro dantzaldia Trikimailu taldearekin, Beti Alai pilotalekuan.

### Uztailak 26, larunbata:

**6:00etan:** Goizaldeko danborrada eta txokolategia.

**8:30etan:** Goizeresia txistulari eta trikitilariekin.

**9:00etan:** Irungo Udal Musi-

**MIAMI**  
**kafetegia**  
Etxezarreta kalea  
ORDIZIA

ILEAPAINDEGIA  
**AGURTZANE**  
Urdaneta, 42 - behea  
88 19 50  
ORDIZIA

**BIÑASPRE**  
Oporretara joan aurretik eskuratu  
Biñaspren zure brontzeatu eta  
edertasun programa  
Zure eguzkitarako produktuak  
erosteagatik, opariak ditugu!  
K. Nagusia, 8 88 13 37  
ORDIZIA

**USAINDEGIA**  
**OPARIK**  
**ESTETIKA ZENTRUA**

**HIDALGO**  
BITXITEGI - ERLOJUTEGI  
◆ Diseinua ◆  
◆ Kalitatea ◆  
◆ Garantia ◆  
◆ Berrikuntzak ◆  
Legazpi Kalea, 4  
88 04 06  
ORDIZIA





ka bandaren kalejira.

**11:00etan:** Meza Nagusia Parrokian, Santa Ana abesbatzarekin.

**12:15etan:** Agintarien soka-dantza, Plaza Nagusian.

**13:00etan:** Irungo bandaren kontzertua, Plaza Nagusian.

**18:00etan:** Eskuzko pilota partiduak, pilotalekuan.

**19:00etan:** Haur animazioa, alde zaharrear. Ondarruko erraldoiak.

**19:00etan:** Kalejira txaranga.

**21:00etan:** Beti Argi bandarekin kalejira.

**22:30etan:** Dantza Folklorikoaren jaialdia, Rigako (Lentonia) Musika eta Koreografia eskolaren eskutik, Domingo Unanue plazan.

**23:30etatik 3:30ak arte:**

Iruña Band Orquesta eta Kalejira txaranga.

**23:30etatik 4:00ak arte:** Dantzaldia Iratxo taldearekin, Beti Alai pilotalekuan.

### **Uztailak 27, igandea:**

**9:00etan:** Txistularien eta trikitilarien goizeresia.

**11:00etan:** Santanazaleen meza, Parrokian.

**12:00etan:** Santanazaleen Esku-dantza Plazan.

**12:30etan:** Koadrilen irteera.

**21:00etan:** Kalejira Beti Argi bandarekin.

**23:30etatik 3:30ak arte:** Aquarium Show Orquesta eta Kalejira txarangarekin, ezkonduen eguneko dantzaldia, Plaza Nagusian.

**23:30etatik 4:00ak arte:** Drindots, pilotalekuan.

## **Txoznetako egitaraua**

Txoznetako batzordeak prestatu duen egitaraua duzue jarraian:

**Uztailak 20:** Bideo emanaldia: Alternatiba Demokratikoa, presoen aldeko bideoa, Asterix... 9.00etan.

**Uztailak 24:** Preso eta errefuxiatuen eguna: 12.00etan Udaletxe parean txupinazoa. Ondoren poteo herrikoia trikitilariekin. 2.30etan: herri bazkaria, Herriko parean. Ondoren toka txapelketa. 6.00etan: Dantzari eta trikitilariekin animazioa herrian zehar. 8.00etan: omenaldia preso eta errefuxiatuei. Segidan ekitaldi berezia: Jokin eta Arantxa 15 urte kartzelan. Gaueko 1:00ean, manifestazioa plazan.

**Uztailak 25:** 7.00etan antzerkia: 'Neoliberalismo'. 11.00etan: Potrotaino, Izurri Berria, Anomia eta Mutuo desprecio taldekin kontzertua.

**Uztailak 26:** Arratsaldeko 4.30etan Trikitizio taldea. Erakusketa kubatarra, 7.00etatik aurrera.

**Uztailak 27:** Manifestazio ixilia herriko kaleetan zehar, eguerdiko 1.00ean.

## **Gaztetxeko ekintzak**

**Uztailak 19:** Arratsaldeko 4.00etan futbol txapelketa. Gaueko 11.00etan kontzertu akustikoa.

**Uztailak 20:** Umeentzako gaztelu puzgarriak arratsaldean zehar.

**Uztailak 24:** Bertso-afaria gaueko 9.00etan Gaztetxean.

**Uztailak 25:** Bideo emanaldia (musikalak, gai sozialak...) arratsaldeko 5.00etan. Ondoren, 7.00etan, antzerkia.

**Uztailak 26:** Kontzertu akustikoa, 11.00etan.



**Umeen arropa denda**

FESTETAN ONDO IBILI  
ETA OPORRAK ONDO PASA!

☎ 16 12 39  
Santa Maria, 13  
ORDIZIA

# **IRURENA**

**Lentzeria - Mertzeria**

Urdaneta, 29 ☎ 88 04 47  
ORDIZIA



**MARTINEZ** *Jatetxea*

Santa Maria, 10

☎ 88 06 41

ORDIZIA



## 1922ko Ordiziako aldizkaria

Santa Ana jaietarako kale-  
ratzen den aldizkariarekin  
batera, 1922an argitaratu  
zen aldizkariaren errepro-  
dukzioa banatuko da. Garai  
hartako Ordizia nolakoa  
zen ezagutzeko aukera pa-  
regabea eskainiko du.

## 11 milioitik gorako aurrekontua

Aurtengo jaien aurrekontua  
11 milioitik gorakoa da. Di-  
ru gehien kostatzen diren  
ekintzak hauek dira: Hau-  
rraren eguna 500.000 peze-  
ta; danborradako 3 karroza  
500.000; txirrindulari pro-  
ba 1.100.000; 6 dantzaldi  
1.440.000; Irungo banda  
700.000; koadrilen eguna  
1.600.000; danborrada  
250.000; eta matutina  
382.000 pezeta.

## Oñatiko abesbatza

Uztailaren 23an, Oñatiko  
Ganbara Gazte abesbatza-  
ren saioa izango da Jubila-  
tuen Egoitzan, arratsaldeko  
7etan.

# Gazteen nazioarteko folklore jaialdia



Ordiziako Jakintza dantza-taldeak parte hartuko du jaialdian.

**B**ehobiako Eraiki  
dantza-taldearekin  
elkarlanean, Igo Na-  
zioarteko jaialdi folklorikoa  
antolatu du Ordiziako Uda-  
lak, Santa Ana jai hauetarako.  
10-16 urte bitarteko  
gaztetxoak izango dira eto-  
rriko direnak. Folklore ez-  
berdinak ezagutzeko aukera  
izango da.

Behobiatik etorri zi-  
tzaien jaialdi hau antolatze-  
ko deia. "Beraiek bakarrik  
ezin zuten antolatu horrela-  
ko ekitaldi bat, gastu han-  
dia baitakar. Guk hasiera-  
hasieratik baiezkoa eman  
genion eskaintzari, beti ez  
baita aukerarik izaten kan-

potik dantza-taldeak ekar-  
tzeko", dio Jesus Mari Lariz  
kultur zinegotziak.

Ordiziako Jakintza talde-  
arekin batera, honako talde  
hauek hartuko dute parte:  
La Garrotxako Escola de  
Dansa Folclorica xa (Olot-  
Girona), Jaengo Asociacion  
Provincial de Coros y Dan-  
zas 'Lola Torres', Ibizako  
'Es Broll' taldea, Kroaziako  
'Vez' Klub kulturala eta  
Behobiako Eraiki dantza  
taldea.

"Aurten lehenengo aldia  
da Nazioarteko folklore  
jaialdia antolatzen duguna  
baina Behobiatik jarraipe-

na eman nahi zaio, eta guk  
ere horrela izatea nahi du-  
gu, urtetik urtera sendotuz  
joan dadila". Era honetara,  
Ordiziako dantza-taldeek  
beste herrialdeetara aterat-  
zeko aukera izango dute.  
"Honela beste taldeekin  
trukeak egin daitezke, he-  
rriko dantza-taldeak kanpo-  
ra ateratzeko. Bestela oso  
zaila da kanpora atera-  
tzea", dio Larizek.

Uztailaren 25ean izango  
da ikuskizuna, eguerdiko  
12.00etan bata eta arratsal-  
deko 7.00etan bestea.  
Eguerdian desfilea egingo  
dute alde zaharrean, Urda-  
neta kalean eta Gudarien  
etorbidean, eta tarteka ak-  
tuazio txikiak egingo dituz-  
te. Arratsaldean, desfilea  
egin, eta ondoren banan-ba-  
na, aktuazio ezberdinak  
egingo dituzte Plaza Nagu-  
sian.

Hurrengo egunean, uz-  
tailak 26, nagusien txanda  
izango da. Letoniako Riga  
hiriburuko Musika eta Ko-  
reografia Eskolaren ema-  
naldia izango da Domingo  
Unanue plazan, gaueko  
10.30etan.

## ARANTXA

MERTZERIA - LENTZERIA

*Jai Zoriontsuak!*

J. M. Barandiaran, 3 ☎ 88 76 15  
**ORDIZIA**

## OIANGU

T A B E R N A



☎ 88 30 03

Euskalerrria z/g **ORDIZIA**



## JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.

Urdaneta, 15

☎ 88 82 52

**ORDIZIA**

*Presio altuko  
solariuma*



## Xikel

**NEVES**

BANATZAILEA

ARMAIRU  
ENPOTRATUAK  
NEURRIRA

Urdaneta, 41

☎ 161606

**ORDIZIA**



**MUGAR**

**Argiztapenak**

**Berrikuntzak orokorrean**

**Iluminazio denda  
ireki berria**

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580  
eta 908-000831

**ORDIZIA**



**ORDIZIA  
BIDEO  
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19  
**ORDIZIA**



**HERRI BATASUNA**

*Ordiziar eta biritari guztioi jai  
zoriontsuak opa dizkizuegu*

**ORDIZIA**



**MUJICA**

**LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

**ORDIZIA**



**INPRIMATEGIA  
URDANETA**

**KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA  
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ**

Urdaneta, 26

☎ 88 04 46 Faxe: 16 14 07

**ORDIZIA**



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrialia
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90

Mallotz, 25. pab.

Faxe: 88 82 67

**ORDIZIA**



FERNANDO ARANA LEKUONA

*Jai zoriontsuak guztioi!*

Amerika, 2

☎ 88 89 80

**ORDIZIA**



**GABIONA**

Rodamientos, S.A.

**Biltegi eta bulegoak:**

Goierri k. 4

Goierri K. z/g

☎ 88 45 00 Faxe: 88 99 06

**ORDIZIA**

**OSKARBI  
OINETAKOAK**



*Mota guztietako  
eta adin guztien-  
tzako oinetakoak.*

*Jai zoriontsuak denoi!*

**Kickers**

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

**ORDIZIA**



*Artesania  
Opariak*

K. Nagusia, 28

☎ 16 02 48

**ORDIZIA**



**OINETAKOAK  
OSAGARRIAK**

*Festa onak pasa!*

J. M. Barandiaran Plaza, 3

☎ 88 61 77

**ORDIZIA**



**MUGAR**

**Argiztapenak**

**Berrikuntzak orokorrean**

**Iluminazio denda  
ireki berria**

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580  
eta 908-000831

**ORDIZIA**



**ORDIZIA  
BIDEO  
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19  
**ORDIZIA**



**HERRI BATASUNA**

*Ordiziar eta biritari guztioi jai  
zoriontsuak opa dizkizuegu*

**ORDIZIA**



**MUJICA**

**LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

**ORDIZIA**



**INPRIMATEGIA  
URDANETA**

**KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA  
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ**

Urdaneta, 26

☎ 88 04 46 Faxe: 16 14 07

**ORDIZIA**




- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrialia
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90

Mallotz, 25. pab.

Faxe: 88 82 67

**ORDIZIA**



FERNANDO ARANA LEKUONA

*Jai zoriontsuak guztioi!*

Amerika, 2

☎ 88 89 80

**ORDIZIA**



**GABIONA**

Rodamientos, S.A.

**Biltegi eta bulegoak:**

Goierri k. 4

Goierri K. z/g

☎ 88 45 00 Faxe: 88 99 06

**ORDIZIA**

**OSKARBI  
OINETAKOAK**



*Mota guztietako  
eta adin guztien-  
tzako oinetakoak.*

*Jai zoriontsuak denoi!*

**Kickers**

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

**ORDIZIA**



*Artesania  
Opariak*

K. Nagusia, 28

☎ 16 02 48

**ORDIZIA**



**OINETAKOAK  
OSAGARRIAK**

*Festa onak pasa!*

J. M. Barandiaran Plaza, 3

☎ 88 61 77

**ORDIZIA**



## ITSASONDO

## Andra Mari jaietako egitaraua prest

### Abuztuak 13, asteazkena:

18:00etan: Txupinazoa.

18:00etan: Haurren arteko futbol txapelketa.

19:30etan: Gazteen arteko futbol txapelketa.

21:00etan: Afaria Gazte-txean.

### Abuztuak 14, osteguna:

9:00etan: Trikitilarien di-  
na.

12:00etan: Euskal dantzak:  
herriko haurren dantzaldia  
eta Udal korporazioaren es-  
kutik, soka-daptzaren be-  
rreskuratzea.

13:00etan: Hamaiketakoa,

beheko plazan.

18:00etan: Zinta karrera,  
beheko plazan.

19:30etan: Salbea.

20:30etan: Kalejira herriko  
txistulari eta buruhandiekin.

21:00etan: Herri afaria, be-  
heko plazan.

23:00etan: Maixa eta Ixia-  
rrekin dantzaldia, beheko  
plazan.

### Abuztuak 15, ostirala:

9:00etan: Txistularien di-  
na.

10:00etan: Jubenil mailako  
txirrindularien itzulia.

11:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Toka txapelketa,  
beheko plazan.

18:00etan: Pelota partiduak  
Errota frontoian: jubenilak:  
Jauregi-Sukia Saralegi-Min-  
tegiren aurka; afizionatuak:  
Aritzimuño-Etxeberria Ar-  
tola-De Luzen aurka.

19:00etan: Sagardo dasta-  
keta eta kalejira Pasai tx-  
rangarekin.

23:00etan: Mus txapelketa,  
Udaletxe azpian.

23:00etan: Gozategirekin  
dantzaldia, beheko plazan.  
Mozorro lehiaketa.

### Abuztuak 16, larunbata:

5:00etan: Txokolate jana.

6:00etan: Danborrada.

9:30etan: Txistularein goiz  
eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30etan: Altzagarateko  
igoeraren irteera. 12:30etan  
sari-banaketa.

16:30etan: Haurrentzat txi-  
rrindu proba.

18:00etan: Trial-sin ikuski-  
zuna, beheko plazan.

20:00etan: Patata tortila  
txapelketa, beheko plazan.

23:00etan: Triki-Trakerekin  
dantzaldia beheko plazan.

## ZERAIN

### Abuztuak 14, osteguna:

12:00etan: Herriko gazteen  
arteko futbito txapelketaren  
arteko azken partidua.

16:00etan: Haur jolasak.

20:00etan: Kanpai buelta-  
koak eta suziriak festei ha-  
siera emateko.

20:00etan: Ohizko gibel ja-  
tea Liztormendi elkartearen.  
Edonork parte har dezake  
aurrez izena emanda.

23:00etan: Haur eta hel-  
duen danborrada.

Ondoren eta goizalderarte,  
Kristina, Amaia eta bere tal-  
dearekin dantzaldia.

### Abuztuak 15, ostirala:

9:00etan: Txistularien goiz  
eresia etxez etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Txakolin dasta-  
tzea herriko plazan.

12:00etan: Herriko gazteen  
kontzertua plazan.

17:00etan: Andramari bola  
txapelketaren hasiera.

18:00etan: Pelota parti-  
duak.

20:00etan: Zeraingo IX.  
Trikitilari txapelketa, herri-  
ko plazan.

23:00etan: Imuntzo eta Be-  
loki taldearekin dantzaldia.

### Abuztuak 16, larunbata:

9:00etan: Txistularien goiz  
eresia etxez etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Herri kirolak eta  
Sebastian Lizaso eta Imanol

Lazkano bertsolariak.

17:00etan: Andramari bola  
txapelketaren azken saioa.

20:30etan: Herri afaria pla-  
zan, Lizaso eta Lazkano  
bertsolariekin eta Juanito  
Mendizabal txiste kontala-  
riarekin.

Afalondoren: Kristina,  
Amaia eta bere taldearekin  
dantzaldia.

1:00ean: Mozorro gaua,  
mozorrotuen desfilea eta sa-  
ri-banaketa.

## Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



### ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso apro-  
posak izan daitezke bertako txoko,  
ibilbide eta altxor historiko-artisti-  
koak ezagutu ahal izateko.

**Zatoz, gonbidaturik zaude.**





## SEGURA

## Arte estudio-galeria herrian



Jesus R. Jauregi Jorge Oteizari erakusketari buruzko azalpenak ematen.

Uztailaren 11n inauguratu zen Jesus R. Jauregi eskultore eta margolariaren arte estudio-galeria. Aurreko lan lekua txiki geldituta, Lardizabal kaleko 11. zenbakiko etxabea, tailer nahiz galeria modura erabil dezake aurretantzean Jesusek. Bertan, bere oleo lanak, grabatuak eta eskulturan nahiz arkitekturan diseinatutako hiri-proiektuak aprezia daitezke. Bisitetarako edo artelanen bat erosteko, aurrez 800481 telefonora deitu behar da.

Inaugurazio ekitaldiko ezusterik handiena Jorge Oteiza eskultorearen agerpenak ekarri zuen. Oteizari Jesusen eskultura interesatu zitzaion batik bat. Erakusketako lanetako bat berea izatea gustatuko litzaiokeela gaineratuz. Oteizaz aparte, bertan izan ziren Nestor Basterretxea, Joxe Mari Telleria, Donostiako 2 arte-galeria, kultura eta artearen munduko zenbait jende, herriko eta inguruko herrietako agintariak eta hainbat herritar.

Jesusek eskuartean dabilzkien lanen artean, Gasteizko atea adierazi nahi duen "Igarotze lekua" deitu-

riko eskultura dago. Gasteizko Udalak hiriko sarretarik garrantzitsuenetako batean eskultura jartzeko lekua onartua dio eta orain babesle bila dabilta. Datorren urterako, berriz, Londreseko arte-galeria batean jarriko duen eskultura eta pintura erakusketa ere prestatzen ari da. Gainerantzean, zenbait eskultura proiektu aurkezteko asmoa du Gipuzkoan.

### Informazio bulegoa

Goiekiren inizatibaz, Udalen laguntzaz eta Diputazioak finantziatuta, Segurari buruzko informazio bulegoa dago irekita Kultur Etxean, uztailaren hasieratik abuztuaren bukaera arte, astelehenetatik zapatuetara 11:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara. Bertan, Mari Jose Insaustik, Alazne Goikoetxeak eta Larraitz Intxaustik, Segurako eta Goierriko informazioa emateaz gain, bixita gidatuak ere eskaintzen dituzte. Informazioaz gain, ordea, Aste Santuko prozesioaz erakusketa irekiko dute uztailaren 18an eta herriko nahiz Goierriko zenbait produktu ikusi eta erosteko aukera ere badago. Gainera,

Joan Anjel Egañaren laguntzaz informazio bulegoari egokitutako bideoa prestatzeko asmoa dute bertan eskaini ahal izateko. Informazio gehiago Udaletxean (801006).

### Mapa toponimikoa

Dirulaguntzaren faltaz urtebete inguru kaleratu gabe egon den mapa toponimikoa argitaratu da. Herriko leku izenez gain, baserriak, bideak eta aztarna historikoak azaltzen diren koloretako mapa tolesgarria, herritar guztiei bideratuko die laster Udalak.

### Labur labur

● **Toka:** uztailaren 5ean sailkatuta, 6an, Euskadiko txapeldunorde geratu zen Antonio Agirre, Zumarragan izandako toka saioan. 8 botalditan 20 txapa jo zituen Antoniok, Eduardo Alvarez irabazle pasaiarrak baino 2 gutxiago.

● Uztailaren 6an, **Xantiago Goiburu** Urbian egondako artzairik zaharrenetakoa, Idiazabalgo gaztaiaren kofrade berri izendatu zuten Ordizian. Bertan, domina eta diploma eman zioten eta gaztaia babestu eta sustatzearen alde zin egin zuen.

● **Txangoak:** Uztailaren 15ean ospitaleko eta herriko 12 lagunek Estibalitzera egin zuten egunpasa. Uztailaren 16an, berriz, 49 etxe-koandrek Orreagan eta Donibañe Garazin pasa zuten eguna.

● **Futbola:** uztailaren 17an bildu ziren, 97-98 denboraldian kadeteetan, jubeniletan eta Igo errejionalean jokatzeke asmoa dutenak entrenatzailer eta zuzendaritzakoe-ekin. Jubenilek eta errejio-

nalek abuztuaren erdi aldera hasiko dituzte entrenamenduak, kadeteek abuztuaren 25ean eta infantilek irailaren 2an. Datorren denboraldirako, gainera, eskola mailako infantil talde berria sortuko da.

● Elorri K. E.ak antolatu duen aste osoko **diapositiba emanaldia**, uztailaren 18an amaituko da, Javier Fernandezek Islandiaz eskainiko dituen diapositibekin (22:30etan plazan).

● **Madurako saihezbidea** guztiz baztertu gabe, Axkueta aldeko zerkaldetik zeharbidea egitearen aukerak aztertzen ari da Udala.

● Udalak, 2 fasetan burutuko den kasko historiko osorearen **azterketa arkeologikoa** egitea erabakia du. Alde batetik herriaren plan berezia onartzeko beharrezkoa da eta bestetik, lur-jabeak obraren bat egin behar duenean ez luke lan hori ordaindu beharrik izango. Honek, 8 milioiko aurrekontua du eta %70a Jaurilaritzak subentzionatuko luke.

● Udalak erosita duen **Ar-dixarrane** etxerako zirriborroa (aurreproiektu modukoa) egin eta dirulaguntzak bideratu ondoren, talde tekniko bat etxea egokitzeko proiektua ari da egiten. Honek, 2,5 milioiko aurrekontua du.

● **Herriko argiteria** ere berritzeko asmoa da aurrean. Hau, 3 fasetan egingo da: lehentasuna, egoera kaxkarrean egoteagatik, San Sebastiaandik Kaleguenerako argiek izango dute; ondoren, Madalenatik Jermanenerakoek eta azkenik herri barrukoek.

Joseba Telleria



## IDIAZABAL

## Herriko bigarren triatloia



Datorren ostegunean (uztailak 24) egingo da herriko triatloia bigarren edizioa. Iazko uztailan egin zen estraineko aldez, eta han izandako giroa eta bildu zen jendea ikusita aurten berriro ere triatloia antolatu dute Kiroldegiko arduradunak eta antolaketa lanetan aritu zirenak.

Arratsaldeko 18.30etan hasita, partehartzaileek hiruko taldetan banaturik ondoko lana bete beharko dute: igeri lau luze, korrika bira bat (igerilekutik abiatuta Zigor auzoaren atzeko alde-

tik segi eta kale nagusitik gora, Bi-kabi alderako bidea hartu eta handik igerilekura) eta bizikletaz hiru bira (aurreko ibilbidearen hasiera bera izango du baina plazan igerilekurako bidea hartuko dute). Taldeko hiru partaideek hiru probak egin beharko dituzte.

Iaz 24 lagun bildu zituen triatloia lehene edizioak. Antolatzaileen esanetan lehiaketa baino gehiago "jendea elkartu eta ondo pasatzea da" ekitaldi honen helburua.

### Udako kirola

Hilaren 24ko triatloiak uztailan zehar izandako beste hainbat kirol ekitaldien bukaera ekarriko du. Uztailaren 23an tenis txapelketako finala jokatu da, arratsaldeko 18.30etan eskolako tenis pistan. 15 lagun aritu dira uztailan zehar partiduak jokatzen.

Uda 97 kanpaina ere bukatzen ari da. Hilaren 10ean hasi zen kanpainako bigarren txanda. Kiroldegian gainera eguneko aste bakoitza kirol bati eskaini zaio. Uztailaren 28tik abuztuaren 28a bitartean kiroldegia itxita egongo da.

### Herriarren bilera

Martxoan herrian izandako gertakarien ondotik, udaltxean egindako pleno berezitik ateratako taldeak eta Ezker Abertzaleko ordezkariak osatutako besteak hiru bilera egin dituzte azken hilabete hauetan. Bilera horien emaitza jakinarazi eta

talde horren lana herriari zabaltzeko asmotan bilera egin zen uztailaren 10ean Kultur Etxean.

Xabier Imazek (Plenotik ateratako taldearen ordezkari) eta Satur Intxaustik (HBko taldearen izenean) eman zuten bi taldeek egingo diren berri. Bilera horietan Alternatiba Demokratikoa herrian zabaltzea, Idiazabalen horren inguruan zer egin daitekeen eztabaidatzea eta jendearen iritzia biltzea adostu zuten bi taldeek.

Kultur etxeko bileran ETAK egindako bideoa erakutsi zen eta Alternatiba Demokratikoa herriko Eusko Alkartasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Elkarriko ordezkariekin eztabaidarako proposamena egin eta ondoren herriko elkarte eta taldeei zabaltzea erabaki zen.

*Xabier Urteaga*

## ORMAIZTEGI

## Imanol Olanen pilotaria bolada onean

Donostiako Trinitate txapelketa irabazi berria du Imanol Olanen. Datorren astean berriz, Errenteriako Madalena jaietako finala jokatu du.

Imanol Olanen eskuz pilota jokatzeke zaletasuna txiki txikitatzen izan duela esan dezakegu. Pilotarako zaletasuna eta prestaketarako gogoak bat egin aritu izan denez, txapelketa askotan garaile izatera iritsi izan da. Honen guztia- ren lekuko dira bere etxean dituen garaikur eta txapela



guztiak. Gaur egun bere adinekoen artean gorengo maila erakusten duen pilotaria da. Donostiako Alde Zaharreko Trinitate plazako txapelketan garaile atera berria da, hurrengo zita berriz Errenterian Madalena jaietan jokatu den finalean du.

Pilotan hasi zenetik hainbeste txapelketetan partaide izan denez ezinezkoa gertatzen zaigu banan-ban guztiak izendatzea. Beraz, 1997. urteko datuetara joko dugu. Aurten orain artean, Imanolek jokatu dituen txapelketa garrantzitsuenetan bi aldiz garaile eta batean bigarren gelditu da. Hain zuzen In-txaurrendoko txapelketan 2. postua lortu bazuen ere, Burlatakoan garaile izan zen, baita orain dela gutxi

Donostiako Trinitate plazako Flaño-Aizpurua txapelketan ere.

Azken txapelketan hontan 22 urtez azpikoan mailan jokatu zuen. Bi talde eta talde bakoitzaren barruan hiru bikote aritu ziren. Finalan Olanen-Castellanos bikoteak Añorgako Oiaga-Mendizabal garaitu zuen, 22-15.

Orain Errenteriako Madalena jaietan jokatu du finala, hilaren 22an.

*Aitziber Murua*



ATAUN

# San Martin elizako organoa CDan



Ataungo organoa, barroko iberiko estiloko arte-lan dotorea, CD batean jasota daukagu joan den asteburuaz geroztik. Esteban Elizondo organojoleak ateratako soinuak bilduz, Motette Alemaniako disketxeak grabatu duen CD hau Udalak bultzatutako ekimena da. Piezak aukeratzera, bi irizipide hauek hartu dira kontutan: egile euskaldunenak izateak batik bat eta organoaren ezaugarrietara ondo egokitzea. Horrenbestez, bere musika iharduera Portugal eta Espainiako errege gorte zein katedraleetan burutu zuten hainbat konpositoreren lanak hartu dira: Diego de Alvarado, Andres de Sola, Joakin de Oxinaga, Olague... Horrela osatutako CD honen bitartez, herria eta bere ondaretzarraren elementuetako

bat ezagutaraztea espero da eta era berean, elementu horri merezi duen balioa ematea.

## ETAren jokabidea gaitzetsi

Uztailaren 14an egindako premiazko eta ez-ohizko bilkuran, Herrigintza eta EAK proposatuta, Miguel Angel Blanco Garridoren bahiketa eta erahilketa-aren inguruko mozio bat aztertu eta onartu zen, HBko zinegotziek kontra botatu arren. Lau puntu-

ko mozio honetan, Ermuako zinegotziaren familia, andregai, lagun zein ermuar Udalbatza eta biztanleekiko bere elkartasuna adierazteaz gain, ETAren jokabidea gaitzesten du Udalak eta era berean, Herri Batasunaren jarrera ere, gizon-emakume guztion giza eskubideak errespetatu eta defenda ditzala eskatuz. Bukatzeko, beste bi eskari ere egin ditu Udalak: ETari, borroka armatua utzi eta giza eskubideak errespetatu ditzala, herri honen gehiengoak hala nahi duela; eta Espainiako Gobernuari, herri honen gehiengoak bere ordezkariak medio agertzen dizkion eskaerak, batik bat giza eskubideei dagozkienak, errespetatu eta erantzun ditzala.

## Ibilbide tematikoak

Ataunen zehar egin daitekeen zenbait ibilbide tematiko proposatuz foileto bat ateratu Udalak, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. 'Ibiliz ikasi, ikusiz ezagutu' lelopean, ondorengo ibilbide hauek jasotzen dira hain juxtu: Sara (Joxemiel Barandiaranen omenez), Troskaetako Hartzak (espeologia eta lurrazpiko mundua maite dituenarentzat), Jentilen bide-tik eta trikuharrien ibilbidea (mitologia eta arbaso zaharrak lotuz), Artzainen ingurua (lanbide zahar honi eskainita) eta Lareo (naturaren gozotasunaz ase nahi duenarentzat). Mapa txiki batean ibilbide bakoitzaren nondik norakoak markatzeaz gain, bidean zehar ikus daitezkeen txoko, elementu eta gauza interesgarrienei buruzko azalpenak ere badatoz foileto honetan, herrian bertan eta mendian ibiltzeko modu berri bat proposatuz: 'ibiliz ikasi, ikusiz ezagutu'.

## Heriotzak herrian

Hil berri zaizkigu Ana Maria Kerejeta, Kerejeta Eneakoa eta Luis Barandiaran Aia auzokoa. Beren sendiekin bat egiten dugu euren nahigabeaz.

## Eta honenbestez oporrak

Ondo izan eta atseden hartu!

*Josune Aldabe*

## Kirol berriak

● Hiruko ederra lortu berri du **Iker Sukia** herritar pisu jaurtitzailak: Valladoliden jokaturako junior mailako atletismo txapelketan berriro txapelkun irten da eta gainera, Euskadiko marka absolutua hautsiz, 17,68 metroko jaurtiketarekin (lehenagokoa baino 7 zm. gehiago). Hori gutxi balitz, junior mailako triangular batean Espainiako selekzioarekin aritzeko hautatua izan da. Triangular hau Gorizian (Italia) jokaturako da eta bertan Espainiako selekzioarekin batera, Italiakoak eta Hungariakoak hartuko hartuko dute parte. Zorionak!

● **K 2rako espediziokideak** eta Joxe Ramon Agirre 'Marron'ek horien artean, etsi egin behar izan dute 8.611 metroko mendi hau igotzeko beren ahalegin honetan. Eguraldi txarra izan da espedizioaren etsirik handiena eta azkenean, elur asko eta biguna zegoela ikusita, bertan behera utzi dute, nekatuta eta arrisku uneak igaro ondoren. Beste batean izango da. Eutsi animoari.

● Oporrak hartu aurretik, ondorengo bi irteera hauek izango dituzte herriko **zikloturistek**: uztailaren 20an, Ataun-Ororbia-Puente (145 km.) eta uztailaren 27an Ataun-Hernani-Goi-zueta (160 km.).



*Santa Ana jai  
zorioitsuak denoi*

# ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

**ALTZAIRUZKO ATEAK:**  
AUTOMATIKOAK,  
BASKULANTEAK,  
MARATILDUNAK,  
STANDARRAK,  
ETA ABAR.



## BEASAIN

## Obren inguruko berriak

Bueltatxo bat ematea nahikoa da, azken hilabeteetan gure herrian burutzen ari diren obra ugarietaz erreparatzeko. Udaletxeko Hirigintza Sailak obra hauen egoerari buruzko informazioa zabaldu zuen pasa den astean.

Gipuzkoa eta Eskisabel plaza hartzen dituen obra da agian ezagunena beasaindar guztiontzat. 55 etxebizitza eraikiko dira bertan, eta honez gain, inguru guztia urbanizatuko da, 180 milioitako kostua duen lanean.

Honela, etxebizitzaren segidan plaza polibalente bat eraikiko da. Urtean zehar aparkaleku funtzioa izango duena, baina bere garaian barrakak edota zirkoa hartzeko modukoa. Gainera, erreka bazterrean bi zentzutako errepidea joango da, beste hainbat aparkalekuekin batera. Denera, 300 autorentzako lekua sortuko da. 100 zuhaitzetik gora ere landatuko dira; eta ezin ahaztu, azken boladan guztion arreta piztu duen lau karriletako zubi berria. Lan hauek guztiak nahiko aurreratuak daude. Uztaila amaieran lehen asfaltatzea burutuko da, eta iraila amaierarako inguruko urbanizazio osoa amaituta eta zerbitzuan egotea espero da. Etxebizitzetarako dagokionean, 1998ko abendurako amaituak egon litezke.

Bukatetik gertuago da goena, Beasainmendiko bidearen hobetzea da. Arazo desberdinengatik dexente atzeratu den obra hau, amaitzeaz dago; asfaltatze lanak pasa diren egunetan burutu dira. Gogoratu asfaltatze berriaz gainera, errepia-



dea zabaldu ere egin da, oinezkoentzako bide bat sortuz, pasialari ugariaren zorionerako. Oinezko bide hau ere asfaltatzeko izango da. Eta bere lehen zatian, Arizmendirarte, ezkerretik joango da; bigarren zatian eskubira pasatuz, hilerriko bidegurutzaren artean. Hau guztiaz gain, 10 banku berri ere kokatu dira bidean zehar. Udaleko teknikariak uztaila bukaerarako guztia prest egotea espero dute.

Beste bi obra ere lanean dira. Alde batetik, Oriamendi kalea elkartuko duen 130 metroko biala. Zentzu bikoitzeko errepidea izango da hau, aparkalekuekin alboetan. Gainera zuhaitzak ere berrezarriko dira, garai batean zuhaitz ugari zituen zonalde honetan.

Bestalde, tren geltoki inguruan, Renferentzako kargak nasa berria eraikitzen ari dira. Nasa berri honek, garrarioen karga-deskarga lanak asko erraztuko ditu eta geltoki guztiko zirkulazioa hobetzen lagunduko du.

Eta bukatzeko, esan, Ezkiaga auzoko hirigintza prozesu geldoan beste pausotxo bat eman dela. Bertarako pentsaturik dauden babes ofizialeko etxebizitzetarako lehen lizentzia munizi-

palak eman dira. Denera, 115 etxebizitza aurrepentsaturik daude, eta oraingoz bloke bakarrak jaso du baita; 24 etxebizitzek hain zuzen ere.

### Loinatz abesbatza Londresera

Abuztuaren 2tik 11ra Ingalaterra aldera joango zaizkigu Loinatz abesbatzako partaideak, 3 kontzertu emanez Londresen. Bidai honen eragile nagusia, Nick Knigh abesbatzako partaidea britainiarra izan da. Aspalditik zuen gogo aurtengauzatu du Nick, eta honela, abesbatzak lehenengo aldiz kantatuko du atzerrian.

Xabier Sarasola, abesbatzako zuzendariak esan digunez, *"helburua zerbait desberdina egitea da. Urtean zehar asko entseiatzen dugu, baina lehiaketa eta kontzertu gutxi izaten ditugu. Bidai honek abesteko aukera emango digu, eta gainera denak bilduko gara entseioetatik kanpoko ekin-tza batean"*.

Abuztuaren 5ean Gravenor Chapel elizan izango dira beasaindarrak. 7an Westminstergo katedralean, eta 8an Our Hast Redeemer and St. Tomas Hare Chelse-

en. Hiru eliza hauetan polifonia erlijiosoak eta kantu folklorikoak abestuko dituzte. Sarasolaren ustetan, *"Westminstergoa izango da serioena, gogorra. Ziklo baten barnean gaude, eta ordubetez aritu beharko gara kantuan. Esfortzu handia da eta ez gaude ohituta. Horregatik, uztailean bi kontzertu luze emango ditugu, Eunate eta Billabonan, prestakuntza moduan"*.

### Ruzolandegia

Azken udetan bezala, auzolandegia antolatu da Igarizako inguru monumentalaren errehabilitazioekin jarraitzeko. 18 eta 19. urteko 40 gazte gipuzkoarrek parte hartuko dute aurtengauzatu den txandatan banatuak eta Jantxo Agirre arkeologo tolosarraren zuzendaritzapean. Aurtengorako lan plana, Igariz jauregiaren hegoaldeko fatxada eta barrualdea garbitzea, eta inguruko belardi eta baratzak txukuntzea izango da.

### Arku-tiro lehiaketa

Ander Telleria beasaindarrak Euskadiko txapelketa irabazi zuen, maila absolutuan, joan zen asteburuan, Olaberrian. Euskadiko eta areto markak ere hautsi ditu, eta Fita ere eman diote (1.250 puntu baino lortzeagatik ematen dena). Ferrolen jokatu den Espainiako txapelketara joango da orain, hilaren 23an.

Junior mailan, Asier Barbadillo herritarrak irabazi zuen. Aritz Zumetarekin beasaindarrarekin batera, Espainiako txapelketa jokatu dute asteburuan.

Aitor Arrue



## ZEGAMA

# Txomin Landa sakristauari omenaldia

Uztailaren 6an herriko Kristau elkarteak Txomin Landa sakristauari omenaldia eskaini zion, 40 urteetan zehar sakristautzan egindako lanarengatik.

Meza Nagusiaren ondoren, Parrokiko Batzordeak Kristau elkartearen izenean Zegamako koadro bat eta erloju bat oparitu zizkion. Ondoren herriko Ostaturtan bazkaria egin zuen Kristau elkarteak eta bertan Udalak Jabier Arrietak eskuz tailatutako makila eder bat oparitu zion.

Hona hemen Jose Luis Zurutuzak Txominen bizitzaren gainean bildutako datuak:

Txomin Matxinbentako Suspain baserrian jaio zen 1923an; eta berehala bere familia Ixuela baserrira jaitsi zen. Txominek ez zituen arteen 8 urte. Aita galdua zuen. Amak, familia hazi behar eta, behin esan zion: "Txomin, lagunduko al diek etxekonekoei?". Eta hantxe, lan eta lan, Zegamara etorri arte.

19 urte zituen Txominek bere amarekin Zegamara etorri zenean. Olaberrin bizi izan ziren lehenengo Vitori bere arrebarenean. Baina non edo han lan egin behar eta Demetrio 'Rubio' bere koinatuaren eskutik etorri zitzaion lanerako gonbitea. Aizkora eta zerra hartu eta mendira. Txabola bat izan zuten han bizileku. Izerdi franko isuri zuten leku mal-kartsu haietan: pagoak bota, egurra moztu, bizkarrean bildu eta kablez Harri-haundira bidaltzen. Hantxe bizi izan zen Txomin 9 urtez.

Badator 1950. urtea. Daria bere arreba Ondaguen



*Txomin Landa sakristaua. Arg.: Fotoetxe.*

baserrira ezkondua zegoen. Mendiko lanak irtenbide onik ez eta, Joxe 'Ondarguen' papelerako txofer zenari esker paper fabrikari hazi zen lanean. Lehenengo Antselmo igeltseroari laguntzen; eta gero, han bertan, papera bildu eta kargatzen. 37 urte emango ditu papeleran, 1987an aurre jubilazioa hartu arte.

Fabrikari ibili zen bitartean, bi gertakizun dira aipagarrienak:

Bat, haxe: 1958an, azaroaren 17an, ezkondu egin ziren Txomin eta Pakita. Don Jabier Lezetak hitza hartzen zelarik. Gasteiz eta Miranda, Bilbo eta Donostiara joan ziren ezteibidaia.

Bigarren gertakizuna haxe: Parrokiko sakristautza bere gain hartu zueneko. 1957an izan zen hori.

Don Jose Antonio Parrokoak, ondo pentsatuta gero, bota zion begia Txomini eta deitu zion. Eta Txominek, presarik ez agertzeko. Bigarrenez deitu zion Parrokoak. Eta Txominek bere artean: "Zer behar ote dik gure parrokoak?" Zerbait txarra egingo ote zuen edo, pentsatzen hasita omen zegoen. Azkenean joan da parrokoarengana. Eta harek: "Txomin, zuk nerekin sakristau jarri behar duzu". "Ni sakristau?" Eta Jose Antoniok: "Bai, sakristau. Atoz elizara".

Abiatu da apaiza eta atze-

tik gure Txomin. San Frantziskoren Hirugarren Ordenakoen igandea tokatzen zen hurrengo egunean. Don Jose Antonio eta biak badoaz elizaren atzeko kapilara, han baitzeuden jasota santuen irudiak. Parrokoak hartu San Frantzisko eta hantxe eman omen zion bizkarrera Txomini, eliza aurrera eraman eta aldameneko aldare-mahaitxoan jartzeko. Horixe izan zen sakristautzako bere lehenengo lana.

Bazituen sakristau berriak bere kezkatxoak (Matxinbentari monagilo ibilitakoa baitzen bera) eta esaten omen zuen: "Atzera Konfiteor nola ikasiko dut baino bik?". Eta gero kanpai jotzea zegoen gainera: Maruñe, goizean goiz, eliza zabaltean. Angelus eguerdian. Eta Aimarritako ilunabarrean eliza ixtean. Aingeru-kanpaia, Agonikoa eta Su-kanpaia ere baziren. Eta sakristauneko Asuntxionek erakutsita, han jarduten omen zuen Txominek sukaldetako mahai gainean ensaia-tzen.

Bere borondate ezin hobez oztupo guztiak menperatu ahal izan zituen, ordea, Txominek. Mezak latinez lagundu zituen; kanpaiak era egokian jo; eta gainera, behar zen guztietan kantatu. Aipatzekoa da martxoaren 19an kantatzen zuena: San Joserren kanta.

Horrelaxe eman ditu bada, Txominek 40 urte luze sakristautzan. Ondo merezia du berak omenaldia eta gure esker ona.

*Eduardo Albizu*

## San Bartolome jaia

Egitarraren laburpena duzue jarraian:

**Abuztuak 23, larunbata:** Koadrilen eguna: 14:00etan bazkaria Elizondo plazan. Gauean Gau-Bela taldearekin dantzaldia. Koadrilen mozturroak sarituko dira.

**Abuztuak 24, igandea:** San Bartolome ermitatik Parrokiara prozesioa 11:00etan. Arin-arin, fandangoa eta sokadantza 12:30etan. Eta gaueko dantzaldia Trabukorekin.

**Abuztuak 25, astelehena:** Bola txapelketak. Bertsolariak 13:00etan: Murua, Egaña eta Peñagarikano. Eta gauean Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

**Abuztuak 26, asteartea:** Umeen eguna: egun osoan haurrentzako jokoak. Eta gauean Drindotsekin dantzaldia.



## OLABERRIA

## Manolo aguazila erretiratu da

Pasa den ostiralean, uztailaren 11n, Udalak Manuel Aran, Manolo aguazilari omenaldia egin zion bere jubilarzioa dela eta. Honela Etxe-Zuri sagardotegian afaria egin zen, eta bertan bildu ziren besteak beste, Udaletxeko langileak, zinegotziak, Juan Mari apaiza, Agustin Agirre alkatea eta bi alkate ohi, Juan Bautista Zubiarrain eta Angel Estensoro. Omenaldi xume honen afalostean Manolori hiru oroigarri eman zizkieten alkateak eta alkate ohiek: zilarrezko plaka bat, elizako iturriaren kopia (aguazilak berritu baitzuen) eta aguazila uniformearekin agertzen den argazki enmarkatua. 25 urteetan zehar egindako lanari agur esan dio beraz Manolok.

Manolo aguazila jaiotzez galiziarra da eta bertan ikasi zuen hain gustoko duen hargin lanbidea. Gaztea zela-

rik, Madridera joan zen lanera Galizian lan gutxi baitzegoen. Sei urtetan zehar bizi izan zen Madriden baina lagun baten bidez Lazkao etortzea erabaki zuen. Gipuzkoan eginiko lehen lanak lanbide berean egin zituen; Lazkaoko Udaletxean aritu zen lanean, Olaberriko eskoletan, Tolosako Paper eskolan eta Oñatin 8 urtez aritu zen. 1970. urtean gaur egun bere emaztea den Mari Florrekin ezkondu zen

eta bi urte beranduago hasi zen aguazil lanetan Olaberriko Udaletxean. Garai hartan Vivó zegoen alkate, honek Manoloren koinatari eskaini zion lana baina ez zuenez nahi, Manolo jarri zen lan honetan. Urte haueetan zehar, udal-ohar asko banatu ditu, konponketa ezberdinak egin ditu baina berak azken hiru urteak ditu gogokoen. Izan ere, azken urte horietan hargin lana egin du. Lehenik San Joan



Manolo alkate eta alkate ohiekin.

Bautista eliza inguratzen duen pareta hasi zen berritzen eta pixkanaka beste eraikuntza asko berritu ditu.

### Autobus zerbitzua

Martxan da jada Goierrialdea autobus zerbitzu berria. Herritarrok zerbitzu publiko hau erabiltzeko aukera daukagu, Beasain, Lazkao, Ordizia (azoka egunetan), Mutiloa eta Zerainera joateko. Autobusa Zeba taberna aurrean geratzen da eta ordu-tegia honako hau da: Mutiloatik irten eta Zeraindik pasa ondoren Olaberri 9:40etan iritsiko da ondoren Lazkao eta Beasaina joateko. Hurrengo 15:30etan izango da eta aurkako norabidean, hau da Beasaindik Mutiloara bidean, goizeko 11:40etan eta 18:10etan pasako da. Abuztuan ordutegi honek jarraituko du.

Nagore Goiburu

## EZKIO-ITSASO

## Itsasoko Alegin Madalena jaiak

Uztailaren 19tik 22ra bitartean izango dira Itsasoko Alegin Madalena jaiak. Egitaraua hau da:

**Uztailak 19, larunbata:**

**21:00etan:** Herri afaria.

**Ondoren:** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

**Uztailak 20, igandea:**

**12:30etan:** Meza Nagusia.

**13:00etan:** Pilota partiduak herriko gazteen artean.

**18:30etan:** Iparaldeko herrikirolak: lasto-altxatzea, ingude jokoa, orga jokoa eta zorroa.

**Ondoren:** Erromeria.



**Uztailak 22, asteartea:**

**12:00etan:** Meza Nagusia.

**Ondoren:** Zelai-Ondo elkartearen pixkolabix txiki bat.

**17:00etan:** Umeentzat ekintzak: gazteluak, zezenak, ohe elastikoak, e.a.

**23:00etan:** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

## GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

**MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak**

Esuskal Herria Kalea  
Industrialdea

☎ 88 04 15  
☎ 16 07 07

ORDIZIA  
OLABERRIA



☎ 88 55 00 ORDIZIA



## GABIRIA

### Abuztuak 14, osteguna:

20:00etan: Suziri eta Kanpaekin festen hasiera.

Arratsaldean zehar: Biri-bilketa baserri baserri herriko txistulariekin.

22:30etan: Bertsolariak: S. Lizaso, Egaña, Peñagarikano, J. Sarasua, Mendizabal eta A. Otamendi.

Gauean: Erromeria Gau Bela taldearekin.

### Abuztuak 15, ostirala:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Gazta lehiaketa herritarrentzat.

12:15etan: Ormaiztegitik Gabiriarako igoera txirrin-duz herritarrentzat.

18:00etan: Herri kirolak: Gabiria Aztiriaren aurka.

19:00etan: Afizionatu mailako pilota partidua: Berraondo-Idiakes Urretabizkaia anaien aurka.

## Santa Marinetatik San Roketarainoko jaiak

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa eskualde eta herri mailan.

Arratsalde eta gauean: Etzakit taldearekin dantzaldia. Mozorro dantza.

5:00etan: Baratxuri zopa, Osinalde elkarte.

### Abuztuak 16, larunbata:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Goruntz dantza-taldearen saioa.

18:00etan: Umeentzako parkea eta mozorro dantza.

18:00etan: Futbol partidua herriko gaztetxoaren artean.

Arratsaldean zehar: Trikitilariak.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketek jarraituko dute.

19:30etan: Sagardo dastaketa pintxo ezberdinez lagunduz.

Gauean: Maixa eta Ixiar taldearekin dantzaldia.

21:30etan: Koadrilen arteko afaria.

5:00etan: Txokolate-jana denontzat, Erbie elkarte.

### Abuztuak 17, igandea:

11:00etan: Meza, herrian hildakoen alde.

12:00etan: XV. Tiragoma txapelketa.

12:00etan: Bola eta toka herritarrentzat.

Ondoren: Kalejira.

18:00etan: Ardo beltz bana-keta herriko zagiardotik.

Afal ondoren: Suziriak Caballer etxearen eskutik. Javieren omenaldia.

Gauean: Joselu Anaiak musika taldearekin dantzaldia.

### Abuztuak 18, astelehena:

17:00etan: Herri txukuntzera etorriko gara, eta ondoren, lanean aritu diren guztientzat afari-merienda.

### Santa Marinetatik Aztirian

#### Uztailak 18, ostirala:

12:00etan: Meza. Ondoren: trikitilariak. 18:00etan: Haur jolasak. 21:00etan: Auzo afaria trikitilariet alaiturik.

#### Uztailak 19, larunbata:

18:30etan: Bola eta toka txapelketa. 18:30etan: Patata tortila lehiaketa. 22:30etan: Agirre, Lizaso eta Mañukorta bertsolariak; Juanito Mendizabal txiste-kontalaria; eta trikitilariak.

#### Uztailak 20, igandea:

9:00etan: Txistularien goiz eresia. 9:15etan: Txirindulari gazteen Aztiriko igoera. 10:15etan: Gabiriako Udalari ongi-etorria. 10:30etan: Meza. 12:00etan: Goruntz dantza taldea. 13:00etan: Garmendia eta Mendizabal bertsolariak eta trikitilariak. 18:00etan: Sokatira. Bertsolariak eta Trikitio taldearekin dantzaldia.

## URBITARTE sagardotegia



Erreserba telefonoa  
18 01 19  
Ergoiena Auzoa  
ATAUN

## ANDRA MARI TABERNA

- Eguneroko menua 850 kafea barne
- Menu bereziak
- Bokadiloetan aukera zabala
- Plater konbinatuak

100 pertsonentzat jantokia  
"Zuk prezioa jarri eta guk menua"  
ANDRA MARI, 5 ☎ 88 69 13 BEASAIN

## KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1  
☎ 88 51 68  
ORMAIZTEGI



## MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

"Eguneroko ogia,  
ogi bereziak eta  
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35    Eloegi, 14    Sta. Maria, 19  
☎ 88 77 58    ☎ 88 72 79    ☎ 16 00 44  
BEASAIN    LAZKAO    ORDIZIA

## UNTXUNDEI garajea



## OSINALDE karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06  
ORMAIZTEGI





### Bustuntza futbol taldea

1966-1967 denboraldiko Bustuntza futbol taldea dugu honakoa. Gazteen arteko herriko futbol txapelketa frontoian jokatzen zen orduan, nahiz eta argazkia Aranan ateratakoa den. Txorosek utzi digu argazkia.

**Zutik:** Angel Caballero, Patxi Tapia, Felix Escaño, Luis Angel Garcia, Txoros, Jabier Maria eta Txato Caballero (entrenatzailea). **Makurtuta:** Javier Jimenez, Luis Antolin, Luis Mari Legarra, Teo Caballero, Luis Arenas eta Cesar Ribera.

## Foto IBILTARIA

- \* Argazki eta bideo erreportaiak
- \* Laborategi zerbitzu orokorrak
- \* Argazki-materialen salmenta  
Zuri-beltzeko laborategi materiala
- \* Argazki zaharren kalitatezko  
erreproduzioak



Errebelatuetan kalitate onena

**GEMA M. ARRUGAETA**  
Argazkilari profesionala

**DAVID MONTERO ARRUGAETA**  
Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

**Elkano, 8 (Asto Kale)**

**☎/faxa: 16 22 64**

**ORDIZIA**



# Egunero Freskoena

✓ **URDAITEGIA**

✓ **HARATEGIA**

✓ **ARRAINDEGIA**

✓ **OKINDEGIA**

✓ **GOZOTEGIA**



**GOIERRI  
MERKATARITZA ZENTROAK**